


BEZEROAREKIKO HARREMANA

BETITXITA enpresaren harremana bezeroarekin automatizatu izango da, hau da, online bidezkoa izango da bien arteko komunikazioa. Alde horretatik, oso garrantzitsua da bezeroarekin harreman sakona eta elkartua izatea. Horretarako, harreman automatizatu on bat izatea beharrezkoa da, beraz, deien bitartez edo “WhatsApp”-aren bitartez hitz egitea da egokiena. Honekin, bezeroa eta konpainiaren arteko harremana estutu daiteke. Honez gain, web-orriaren bitartez, bezeroarekiko arreta atala erabiliko da.



Gainera, ezinbestekoa izango da, egunerokotasunean komunikazio bat izatea eroslearekin bere arreta ez galtzeko eta honela, enpresarekiko izango duen ebaluazio eta iritzia ona izateko. Epe luzera, honek lagundu egingo du enpresa zabaltzen.

Bezeroa enpresarekin integratzeko, aurrez aurreko bilerak egingo dira egun desberdinetan produktuarekin nola doan pertsonalki informatzeko.

Zerbitzuari eta produktuari dagokionez, bi zerbitzu mota eskainiko dira. Bata autozerbitzua izango da, non online bidez bezeroek erosiko duten produktua eta gero etxean beraiek jarri behar duten, baina, jarraibideak eskura egongo dira bai

online baita fisikoki (papelean) ere. Beste zerbitzua aldiz laguntza pertsonala izango da, online edo denda fisikoan eskatu eta erosiko da produktua, baina enpresako langile batek eramango eta instalatuko du produktua egun berean. Bigarrenak, noski, kostu gehigarri bat izango du produktua instalatu eta gero ordainduko dena.

